

LANGILLEN GAIXOALDI- RAKO ASEGUROAK

Ilkeo 384,55 peza kendu ohi zaizkio langille bakoitzari, peoi bakoitzari alegia, asegurorako. Milioiak daduzka aurreraturik langilleen aseguro onak.

Alaz guzuz ere segurantz gutxiarekin arkitzen dira gaitzalditarako Auzen da langilleen arteko miña eta marmarra.

Zer gertatzen da?
Ar dezagun ispillutuz Donostiako "Residencia". Zarata eta txalo andiaz aipatua izan bada ere erantsi zaion pusketa herria lehenan gelditu da tokiz. Lehendik zeuden oheak sartzea besterik ez bait dute egin. Toki berri ar itxia dago oraindik.

Langille gaixoak ugartzen eta tokiak berriz lehenan neurritz. Onek illabeteak zai egon beharra ekartzin dio zenbait langilleri. Operatzeke zai egon beharra alegia luzaroan.

Baïña zergatik ez da irakitzin eginiñ dadukaten toki berri ori, galdetuko du norbaitek. Nola ireki, ordea, lehengorako ere nahiko gaixo-zainik ez badago?

52 gaixo, tartean oso gaizki daudenak, zaitu behar izaten ditu enfermera bakoitzak. Urologiakoak, berriz, gaez 100 bat ohe edo gaixo. Ingleterran esate baterako 22 gaixo bakarrik zaitzen dituzte biren artean.

Gaixo-zain zain eta onak, berriz, ondoren negargarriak dakartzki: Oxigeno-ontzia garaz eraman etañioliago da gaixo bat baïño gehiago. Ito da ume bat baïño gehiago aur-egiterakoan. Beste zenbait iri gelditu dira bizi guzira.

Lanez leporaño daude gaixo-zain auk eta ezin dira iritzi garaz gaixo guztietara. Eta iritxita ere zer gogorekin? Non dute itxurazko lan-saria?

5.000 peza besterik ez ditu irabazten illean "ayudante mediko kirurgiko" deritziak. Enfermerak, berriz, 8.000 amar orduko eguna edo gaua sartuz. Anbulatorioko enfermerak, berriz, 5.600 zortzi ordukoan illean, 6 ordukoan, 4.485.

Alaz guzuz ere badago oraindik Jainkoari esker lan auterako gogoa duan jendea. Baïña non ikasirik ez dadukete. 30 enfermera-gaizentz bakarrik dago lekua Residencia. Ikasi nahi duten lautiak iru kanpoan gelditzen dira urtero.

Eta ambulatorioko egon triseak aztertuko bagenitu? Zenbat ordu zai, zenbat atzera-aurrera. Eta zertarako? Sendagilleri ezer esateko betarik gabe etxeratze.

Azkenean diruak baïño osasunak gehiago balio duala eta partikular batengana jo behar. Langille gizarjoa, nondik oraindik behar diok? Asko irabazten al duk bada, altxor aundi bat etxean edukitzeke?

Auxe da gaixo dauden edo gaixotu ditezkeen langilleen egon-erata triseak! Eta ez da langilleen segurantz-kutxan dirurik ez dagoalako. Diru ori langilleen esku ez dagoalako baizik.

KONTZIENTZIA AGINTARI?

Idazlan honen izenburua ulertgaitza den gairen bat erabiliko ote dedan pentsa eraziko dizu behar-bada. Baina, egia esan, sarritan kontzientziak dionaren eta legegialdi agintzen duenaren arteko arteak handitzen dijoazkigu. Bertatik sortzen da eztabaida eta ezbehar ugari.

Oraintsu, bere kontzientziak eragozten dietela ta, gudaritzara joan gabe gelditi nahi dutenen posturaz zer esana jarri du bazter guztietan. «Vida Nueva» erdal aldizkariak ere lan egokia eskaintzen digu 784 guren alean. Dakusagunez, kontzientziaren aurkako erabakirik hartu nahi ez tuzten horietarako ba zegoen lehen ere (eta arazo hau dela ta zigorpean urte luzeetan espesetzen egondakoak ere bai), baina astero horrek dionez, arazo hau asko zorrotzu da azken aste hauetan.

Jose Luis Beunzaren, katoliko militanten honen jokabideak sortu du esames franko batipat, askoren iritzi, orain arte horrelako posturak katoliko ez diren zenbait kristauren artean gertatzen zelako. Katoliko eta sinesgabeak horrelakorik egin ezaketekin ere pentsatzen ez tuztelako. Geroztik, erlijio gabek ere horrelako erabakiaren jabe gerta ditezkeenik ez du nehorr ukatu.

Gobernuak ere, bere kristautasunari agrian bederik, eutsi nahirik, horrelaon herriarekiko serbitzua zelan zuzendu behar den, lege berezi baten bidez erabaki nahi du. Orain arte, pakietari horiek ordain sarritaz zigorra bapo hartu badute ere, aurrerantzean gudaritzaren ordez (eta zigorra eta kartzelaren ordez) bide egokiagorik izanen du den esperantzirik ez dugu galtzen.

Zein dira, delako «Objetor» hauek horrela jokatzeko izan ditazketen arazobideak? Adventista eta Jehovaren Lekuko edo Testigek, Idazteunaren esana zorrotz beregaitzen dute, pakearen aldeko borrorak erabaki ausarta eskatzen duen uste osoan.

Gizalegea eta herri eskubideak

zaintzeko gudaritza indartsu batez baliatu beharra, ez ote guzintzat tamalgarri eta lotsagarriegia?

Eguneti egunera, gudate ikaragarriaren arriskua handiagoa dugu, harmek eta tresnek gero ta indar ikaragarriagoa dute, eta batez ere gaizki indariek «zuzentzerak» ohi-tuak gaudela dirudi, indartsuak eskubidea eta zuzentasuna berekin balute bezelatsu...

Gaurren, pakea zaindu beharrak berekin dakazkien gatastok ez dira nololnahikoak. Itxuragabekoak bait dira bertan zahutzen diren dirutzak. Gosearen prolema zuzenduko litzake ondandun horien erdiak horretarako erabiliko balira...

Pertsonek ez du sentidurik, ez da nortasunik ere, gizaritearen barruan izan ezik. Beraz, nolobait guztio gizaritearen arduradun gaitzute. Hain zuzen, gudari bezela edo beste era batera gizaritearen serbitzuan ahalagidun beharrean gaitzute. «Cruz Roja Española» deritzan elkartek ere, gudaritzara, kontzientziak eragotzirik, joaterik ez dute nei bere babesa eta laguntza eskaini die erakunde honen barruan gizaritearekiko zeregina ongi bete dezaten. Izan ere horrelako bidea herri atzeratuak laguntzeko era egokia litzakeala uste dugu...

Euskaldun «objetoreei» (barkatu honetarako euskal hitz jatorrik aipatu ez badut), eginbide bikainik ipniko nieke nere esku balego: euskaldun bezela, gure herria hain atzeratu egonik, zergatik alfabetatze edo euskal kultura mailan bide egokirik eskaini ez?

Amets zoroa? Litekeena. Baina ez itxuragabekoa. Gure herriak ez al du kultura saillean besteak hainbat premiarik? Ez al gaitzute guztio, edo gehienok behintzat, kultura arloan txiro eta behartsu? Hona hemen euskaldunok ontzat eman genezakeen bidea. Zoritzarrez, gaur-oz, ez dirudi horretarako egokierarik izanen dugunik.

Mikel Ugaldel

JOY BANGLA! UTOPIA

Joy Bangla! Alegia: Gora Bengala Askatuta. Horixe da Awami-Elkarteen gudu-deia, aurtan Pakistanen harmada sartu aurretik Ekialdeko Banglan maiz entzuna, eta egun hauetazke geroztiko betean itoarazia. «Joy Bangla»; eta ikurrintzat «nauka» bat, alegia, arrozaga urtsuetan nekazariek erabiltzen duten piraguren iduri bat. Horra hor Awami-Elkarteen ezagugarriak.

Nola gertatu da Martxoak matxinada, eta geroztikoko «repression imputoyable» (=zapalketa gupidagarririk)? (Le Monde, 1971-VI-2-an). Zer da Awami-Elkartea? Nor da Mujibur Rahman? Hauek dira gaur entzun daitezkeen galderak.

Ba geneekin jakin, 1947 an Breitana Nagusiak Indiako inperioa gaitzute utzerakoan, bertako etsaigoko pizturik utzi zuela. Gandhiren kontra «divide ut vincas» jokabidea gidaritzat harturi, britaindarrek goritu zituzten hindutarren eta mahomatarren arteko herriak; eta, jakina denez, horretara sortu zen Pakistan-erresuma artifiziala. Erlijio-gudua hasia zen, eta Gandhibek berak oraindik behar izan zuten bere biziaz gudu-sari hitza.

Pakistan sortuta, laster, horrela, haren erresuma mahomatar «federationismo»n barrena abiatu zen: mahomatarrena Erresumako oinarri, hindutarren zapalketa, eta abar. Pakistan mahomatar guruzada baten fruitua da: ez dezagun ahantzi. Haseratik beretik erresuma atzerazale eta erlijioelkoin artean gertatu zen Pakistan. Eta jakina denez ere, bi partetan zatitua sortu zen. Hiriburua Mendebaldean jarri zen, eta Ekialdeko Bangla edo Bengala 2.000 kilometrotatik erabiltzen zen, kolonia bat bezalaxe.

Indiako inperioa izana, jakina denez, ez da ez nazio bat eta ez gutxiagorik ere. Katemirra entzuna dugu, esate baterako, bere burua ez indiatzartat eta ez pakistantzartat ez daukalako. Beste batzuek behar-bada Naga-tarren berri izan dukete.

Baina aski luke irakurleak hango banku-txartel bat ikustea; eta txartel beraren izena eta balio hurrenkada luzean irakurtzea: hindu-eraz, gujerati-eraz, bengali-eraz, eta abar. Herri mordo bat da India, ia lehorti bat. Eta Pakistan gauza bertsua, nahiz lau aldiz txikiagoa. Hots, etnia eta herri horiek (honetaz ez da dudarik) jasan duten miseria geroztik irten ala, beren buruen jabetasuna eskatuz joango dira. Ba dirudi Bangla izango dela ilaroko lehenengo, inglesen kontrako burrukan lehenengoetakoia izan zen bezala.

Era berean, jauntxonen eskuetan dago Pakistan. Ekonomistek dioteenez 22 familiak kontrolatzen ditu gaur Pakistan osoko ondandun %80. Horra hor sozialista gobernu bat...

Baina, egon apur bat Pakistan-darrek kolonia gisa jokatu dute Ekialdeko Banglari dagokionez; eta oso zorrotzi. Bangla erostle-eskualdetzat hartu dute. Banglartar burgesia «nazional» bat sor dedin bildurrez. Paistanen politika hau izan da hitz gutxitan: Banglartar herria agintari klaserik gabe uztea; ez burgesiarik ez teknikorik ez inolako bururik. Ekialdeko Bangla, horretara, soziologiar dagokionez, nekazari herri hutsa da eta ezjakina. Honetxek berak frenatu bide du Mujibur Rahman-en Awami-Elkarte abertzalea; erresuma bat montatzeko jenderik ez bait dago Banglan: «un appareil d'Etat bengali serait extrêmement faible, étant pratiquement dépourvu d'armes avec une police corollante et privé de bourgeoisie indigène», dio Tariq Ali pakistandar trotskistak. Gangesko deltaren eskualdeetan (80.000 km²) elkar gainka metaturik bizi dira Banglartar gizarjoak. Txinan bezela: 800 bitanle kilometro laukian.

Halaz ere Banglartar nazio esnaera gora doa: bai Ekialdean, Pakistanen menpekoan beraz (Orain zapalketa lotza jasaten ari dena); bai Mendebaldean, Indiare menpekoan. Honetako mendialdeetan gerrillatuek agertzen hasti dira. Eta gauza agerzia zedo orain Banglartarren bi abertzaletasun pizkundeak urte gutxi barru Banglako Erresuma Askatuta eta Batura eramango dutela.

Artean, zertan dira politika indarrak? Atzerrian, Biafrako arazoan bezala, isiltsutasa nagusitu da: askoz ere errazago da futbolaz orrialde

osoak betetzea. Horrela bestaldea herria lasai eta baketan bizi da. Ekialdeko Bangla barruan, berriz, atzerteta txiki bat egitea merezi du.

Pakistanen menpeko Banglan, banglartar etnia da nagusi (alegia: bengali-eraz mintzo den herria). Baina ba dira ere Bihartarrak (zortzi milioi), erlijioz mahomatar eta hizkuntzaz urdutar. Hauek erlijio arrazoengatik ihes egin zuten Indiatik; baina erlijio kidetasunak ez ditu hesiak gaitzitu; eta gaur pakistandarren «quinta columna» gisa jokatzin ari omen dira. Ba dago ere, esan dugunez, bengali-eraz mintzo den etnia puska bat Mendebaldean, Indiapean.

Hizkuntzaren desberdintasunaren oinarriak, ekonomiarren liferentziak erantsi zaizkio. Arrozak eta gariak bikoitza balio dute Banglan. Eta Banglan biltzen den dirua, industria berriak eraikitzeke erabiltzen da... Pakistanen, 1956 an (ia haseratik beretik, beraz) 4.500 miloi peseta irten ziren Ekialdeko Banglatik, eta Pakistango lanetan zahutu. Buruko errentak, ordea, besterik idarokiko luke: 1.130 libera Pakistanen, 220 Banglan. Hori dela-ta gertatu da aurtengo neguko hondamendi ikaragarria: Gangesko ibai-gehiegian obrarik ez aspaldi honetan, uholdeari ezin iharduki, eta 250.000 banglartar hil ziren.

Banglako nazio-nahia indartzen ari da. Eta nazio pizkunde horren neurri ona izan da Awami-Elkarte abertzalearen arrakasta harriarria: 1949 an sortua, 1970 eko hauteskundeetan 162 parlamentu-postutatik, 151 irabazi ditu! Pakistanen erantzuna oso demokratiko eta sozialista izan da: Ayub Khan jenerala, Yahya Khan jenerala nagusi zaitu; eta honek Lege Martziala jarri du Banglan. Geroztik 400.000 banglartar garbitu ditu, eta bospasei miloi iritzi dira ihesi Indiare menpeko Banglara. Denen gain kolera agertu da atzerriuren kanpamentoetan (2.000 heriotza gutxienez Nadiako departamantuan bakarrik); eta ihesa ez da gelditu: «l'afflux sans cesse croissant» aipatu du Le Monde-k Ekainaren 2 an.

Awami-Elkartek, eta 1966 ez geroztik buruzagi duen Mujibur Rahman jaunak, pakistandar kapitalismoaren jokoa eta inperialismoa salatu dute. Baina Mujibur Rahman oso zabala izanik ere, mahomatarra da, Bangla-ko herri gehiena bezala. Eta marxismoaren bideak ez ditu onartzen: «Nous voulons établir un régime économique dans lequel les secteurs-clé de l'économie seraient nationalisés. Cette politique ne va pas à l'encontre des intérêts du peuple du Pakistan-Occidental. Ce sont les exploités qui se sentent menacés, eux qui exploitent de la même façon le peuple du Pakistan-Oriental et du Pakistan-Occidental». Hizkuntza hau sozialista da eta abertzalea da. Erabiltzen duenak hamar urte pasa dituzte gartzelan. Bere ingutuan banglartarrak miloika biltzen dakien Mujibur Rahman da.

Ezkerter «klasikoek» ez dute Banglako abertzaletasunaren indarrean sinistuz, eta gutxin jarri dira. Banglako maizaleak berak, isilik egon gaitz gaur arte Pekinen aginduz: Pakistan Indiare etsaia bait da. Eta aste haustan nahia izan da Maok Pakistanen gobernu lagundu; eta mi-Elkarteen helburua kondenuatu du argi eta garbi. Batak, fededun gorriak, harritu egin dira hau ikusiz. Ni, egia aitortzeko, batera ez.

Eta horrela berriz ditugu elkarren kontra marxistak batetik (Dacca-koak eta Pekingoak batera) eta Banglako herri zapaldua bestetik. Irakaslerik famatuak afuslatuak izan dira, eta fameliak berekin batera: ikasleak Unibertsidadea utzi eta mendira joan dira gerrilla egitekotan; Dacca-ko bitanlearen erdia India aldera joan da ihesi, dena utzirik; sei dendatitak best hetsita daude orain dela bi hilabete; eta han eta hemen dena izan da errea eta funditua, «hamar Song-My eta hamar Oradour-sur-Clanc» batera eginenez. Herria irakiten ari da, baina ezintasunean.

Baina ezkerter klasikoek, marxistek alegia, ez dute deusik ulertu. Eta hau ez dut nik bakarrik esaten, Pakistandar trotskista den Tariq baizik: «Si la Ligue Awami a pu se développer c'est en grande partie parce que la gauche s'est montrée incapable de comprendre l'im-

portance de la question nationale en Bengale-Orientale». Garbiago ur garbia.

Pakistanen atzeritar politikak, ordea «anti-imperialista» da... omen!

Eta Banglartar gizarjoen askatasun-nahia itozteke erabaki dute batera Pekingo «sozialistek» eta Londreskoek.

Bapo mutirik! Zer axola munduari beste geroztiko bat? Pakistango aiton-semeen eta kapitalisten abotsa entzuna izan da nun-nahi. Daccako deihandiatsi Gangesko ibaien zurruruak itoko ditu.

Larresoro

Urrezko aroa. Jainkoak bezala jendeak, ez neke ta ez kezka. Zahartzeroan miñik gabe. Eriotza, berri, lo gozo batek artea.

Baïña Prometeo lotsagabea agertu zen, su-lapur ura. Zeusek suk artuta, ondandemendi gaitzak bidali zituen lurrera.

Arrezkerok ortxe gabiltza, Paradisutik jaurtiak, irrika bizian, Sisiforen ondorengo triseak, Sisifo berri gaixoak, arria mendiko tontorrera eraman nahi eta eraman ezin, goruntz batzuetan, aml behera lesteetan, eta ala ere etsi gabe, lehenago lepotik burua. Ikaro bihoztuandi arrazoitxiak, goregi ibil-zaleak, egak urtuta itsaspen murgiltzera kondenatuta. Oostera, Fenix egiazterren gisa, piztu ta egatzeko gain guztien gaitzeta.

Esperantza ta ametsaren ezkontzatik jaio zen Utopia. Betei gaude zori obeen esperantzen. Ametsa dugu lege. Utopia noski esperantza da, itxaropena da... [Eta ametsa ere, zorion-egaria. Baïña Utopia gurasoak baïño gehiagokoa da. Besterik da. Ametsa lezea duzu. Eten-gabeko udaberriaren ekarri bat. Utopia da katedral bat, kondairaz igurtzia, sozial pisuz bete, irudi ugari aberastua. Itxaropena laño urdin baten antzekoa da, bizitzeko ilusioa ematen digun zerbitu. Utopia gauza konkretuagoa da, asmo zehatzez josia, eginkizun garbiak erakusten dituen. Trajedai askoren ama da, iraultza frankonen zi indartsua.

Platon baïño lehenagokoa da. Morok izena eman aurretik milaka urte bitzitu zen giza-omakumeen bihotzetan.

Geroztik ere, apaiz nagusi, ikasle ta jarraitzaile anitz izanik du. Gizon ikaslek aspea ta sakontasuna eman zitzioten. Owen, Fourier, Saint-Simon, Campanella fraile jaikiñtuak. Munzer, Tolstoy, Huxley, Orwell, Mannheim Marcuse. Auek alde batera edo bestera gaurlakotasa erantsi zitoten edo diote. Alde nahiz kontra egiteko oiek jarri zitrelako, utopia gure artean berriz bizi da, orainoxe arloa dugu, gure-gurea ikusten dugu.

Gaizte Utopia-zalea omen da, oraindik ez den gizaritearen aldekoa. Zaharra, aldi, mitoareen adiskidea, onezkerok ez den gizaritean bizi dena. Gaizte geroan bizi da. Zaharra, lehenan, bere gaiztealdi galduek. Gaizte, ameslar, Zaharra, loti. Esan oituen gehiegikeria nabari da, baiña zentzua, leera adierazteko, itz egoki gertatzen dira. Aspalditxo batean arrazioa erdi bala eon zitezkan. Gaur ordea, gazeriak arrazio gehiago du. Lehen gertaerak nekez etortzen ziren. Gidazidaren marxta mantxua zen, dena polki zebillen etorkizuna aldeaz aurretik ari ikusten zen. Orain guztia azkar dator, ariñ da. Geroa ustegabe botatzen zaigu gaifera. Salto izugarriak egiten dituzte zientziak. Ezintzat jotzen zena egia bihurtzen zaigu. Egocera berriak sortzen dira. Zailago beraz asmatzea posible zer den, ezintasuna non dagoen. Utopia garaian bizi gero. Utopia giza-giro da.

Utopia aipatu herria du Aita Santuak. Ideolojiak behar-bada dutela dirudi. Eta Utopiak, berriz, indardaldia, piztuera. Utopiak, Janok bezala, bi aurpegi ditu. Batetik, alferkeriako tentaldia izan ditek. Bestetik, gizaritearen kritika molde bat da-ta, irudimeneri zirikatzen du, etorkizun berrin biltzateko laguntza da, irrikatsuna baldin badu kristau-deia surki lezake.

Pentsatzeok da Aita Santua, ori esatean, Frantzia orain iru urte izandako gertaerak, eta auen antzeko, begira egon dela, eta ez Utopia klasikoegi begira.

I. Bujanda

portance de la question nationale en Bengale-Orientale». Garbiago ur garbia.

Pakistanen atzeritar politikak, ordea «anti-imperialista» da... omen!

Eta Banglartar gizarjoen askatasun-nahia itozteke erabaki dute batera Pekingo «sozialistek» eta Londreskoek.

Bapo mutirik! Zer axola munduari beste geroztiko bat? Pakistango aiton-semeen eta kapitalisten abotsa entzuna izan da nun-nahi. Daccako deihandiatsi Gangesko ibaien zurruruak itoko ditu.

Larresoro